

# B

BARREN

# Eta holantxe, eskerrik asko!

26 urte eta gero,  
erretiroa hartuko du Mari Josek





# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

## Chevrolet Aveo Berria. Get Real.



Aveo 9.500 €-tik aurrera

### AVEO

Chevrolet-en zure beharretara egokitzen gara. Horregatik, Chevrolet Aveo berria gidatu baino gauza burutsuagorik ez dagoela pentsatzen dugu, zure eguneroko bizitzaz gozatzeko auto erabilgarria. ABS, EBD, laino-argiak, aleaziozko hagunak, aserko eta aldamerako aire-poltzak, ISOFIX euskarriak, aire-girotu automatikoa, barne ordenagailua, alarma, irrati CDA MP3 eta konexio osagarriarekin. (Bertsioen arabera ekipamendua). Azken batean, errealtatezko munduan behar duzun guztiarekin, Chevrolet Aveo berria, bizitza errealerako diseinaturia.



Giauto Eibar - Otaola, 27 • Tel: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es  
Giauto Olaberria - Karabi Ind. • Tel: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

## Friki

Denok gara frikiak. Desberdinak izatearen ordaina. Multzoka sortzen ditugun taldeetan denok dugu lekuren bat. Aldiz, multzo horretatik kanpo eta beste- en begietan friki itxura hartzen dugu. Zein da perfil konkretu baten izatea frikitzat daukan epailerik objektiboena? Futbolaria? Dendaria? Tabernaria? Politika- ria?...

Maiatzaren 25ean ospatu zen friki guztiak harro sentitu beharreko eguna. Askok frikitzat dauzkate be- raien buruak: komiki zale, manga zale edo iraniar zi- nema zaleak izatearekin bat datorren hausnarketa: frikia izan eta harro egon. Beste askok, oro har, be- raien buruak normaltzat dauzkatenean, multzo horre- tatik kanpo gelditzen dira edo gelditu nahi dute, eta badirudi kaletar xumearen iritziz argi dagoela zeintzuk merezi duten ohorezko izendapen hau. Gure artean bizi dira, egunero agurtzen ditugu, eta ez dirudi desa- gertzeaz dagoen tribu bat denik. Egia esan, kolektibo askok baino onspen gehiago lortu dute gizartearen aldetik, bai beraiek generatutako diskurtsoetan mur- gilduta bizi direlako, edo bai gizartearen ikono eta is- pilu bihurtzen hari direlako. Web orrialdeak, blogak eta eztabaida foroak,... unibertsitate askotan ikerketa antropologikoak egiten dituzte fenomeno hau azter-

tuz. Frikia jaiola ala bihurtu egiten da? Nola erlazionatzen dira beraien habitatean? Hizkun- tza propioa daukate? Ugal- tzen dira? Nor da frikiagoa, ja- ponia ikasten duena bere manga zaletasunagatik, ala *Marca* egunkaria irakurtzen due- na bakarrik? Nik behintzat oso argi daukat, bigarren hau friki itzela dela. Alonsomaniakoak edo mundu errealean baino Errealaren munduan bizi dire- nak, adibidez.

Galdetu zeuen buruari gure ordenagailuak izorratu edo ku- tsatzen direnean nortzuek diren konpondu edo hondatzen di- tuztenak....frikia mundua kon- trolatuko duten egunari itxoin beharko horretarako.

Iban Urizar



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Nor da frikiagoa, japoniera ikasten duena bere manga zaletasunagatik, ala *Marca* irakurtzen duena? Nik argi daukat bigarrena friki itzela dela”**

## HANKAUTSIK

**AINHOA MENDIBILEN BLOGA MARTXAN DA**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**





# MIGUEL LARIZ

CD ELGOIBARKO PRESIDENTEA

**“Jendeak ez du  
gure lekukoa  
hartu nahi”**

Miguel Larizek argi du ekainaren 6ko hitzordua erabakigarria dela Club Deportivo Elgoibarrentzako. Bi urtean egunero lan mordoan egin ondoren, gaur egungo arduradunek zuzendaritza laga egingo dute. Presidenterik gabe eta gainbehera betean, Gipuzkoa osoan horrelako beste kasurik ez dagoela adierazi digu. Otsailean egin zen aurreko bilerara oso jende gutxi joan zen, baina datorren barixakuan aurrera jarraitzeko irtenbideren bat topatu beharko dute. Bi aukera dituzte: bata, bazkide diren gurasoak behartzea zuzendaritza taldean lan egitera, hamasei lagun inguruko taldea osatuz, baikoitzak lan gutxiago izan dezan; bestea, enpresa baten zerbitzuak kontratatzea. Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera egingo den bileraren ostean, hamar eguneko tarte hartuko dute bataren ala bestearen alde egiteko.



**Orain dela bi urtetik zaude CD Elgoibarko zuzendaritza taldean...**

Guraso ginen aldetik, uste genuen bertan egon behar genuela. Horregatik orain dela bi urte sartu ginen. Bi urte egon gara lanean. Gaur egun bost pertsona gaude zuzendaritza taldean.

**Eta heldu da sasoi berritzeko...**

Bai. Uste dugu jende gehiago sartu beharko litzatekeela taldean, eta beste batzuek jarraitu beharko luketela. Horregatik egin dugu deialdia.

**Arazoa azken bi urteotatik dator...**

Arazo hau dugu: jendeak ez duela lekukoa hartu nahi. Gutxi esaten dute baietz, eta oso erreta bukatzen dute. Jendeak uste du lan mordo egin behar dela. Gutxi gaudelako egin behar da lan mordo; jende gehiagorekin lan gutxiago egin beharko litzateke. Baina jendeak paso egiten du.

**Zein aitzakia darabilte ezezkoa esateko?**

Okupatuta daudela. Mundu guztia dago okupatuta; denok dugu lanen bat, gu ere halaxe gabilta. Hemen hamar edo hamabost laguneko talde bat egingo balitz, oso denbora gutxi pasatuko lukete lanean. Bost egon da, orain gauden moduan, egunero-egunero egon behar dugu irtenbideak bilatzen.

**“Ekainaren 6an zuzendaritza taldea berritzeko moduren bat bilatu behar dugu”**

**Badirudi antolatze eta erabakiak hartzeko gogo gutxi dagoela Elgoibarren...**

Bai, hemen ere horixe pasatzen da. Jendea etortzen da partidak ikustera, baina ez lana egitera.

**Lan izugarria egin duzue, hortaz...**

Bai, lehenengo urtean sei edo zazpi ginen, eta batzuk zuzendaritza irten egin ziren, eta azkenean lau edo bost gaude, eta hori zoramen da: fitxak egin, kartelak egin, bileterara joan... Horrela ezin da segi.

**Egunero egiten duzu lan...**

Bai, egunero kide guztiok etortzen gara,

18:30ak inguruan, beste batzuk beranduxeago, lanaren arabera...

**Goizean goiz lanera joan eta handik irtetean segituan hona etortzen zarela ahaztu gabe...**

Horixe da.

**Egoera dramatiko da?**

Ez dakit, baina nik uste dut Gipuzkoa osoan ez dagoela horrelako beste kasurik.

**Udalera jo duzue laguntza eske?**

Bai, azaldu genien gure egoera, baina Udalak zer egin behar du? Gurea hartuko balute bizkarrean, alde guztietan arazo bera dagoenez, gainontzeko elkarteko ordezkariak ere euren joko lukete.

**Beste elkarte asko ere kezku dira jendearen parte hartze eskasa dela-eta...**

Bai, baina guk mezu positiboa zabaldu nahi dugu, eta jendea animatu. Hamasei lagun egotearrekin nahikoa da. Gainera, bost gaudenez, Haundiko partidak izaten direnean zapatuetan ere etorri behar dugu, eta sortzen diren ustekabekoei konponbidea ematen jakin behar dugu. Eta guztiek gure telefono zenbakiak dituztenez, gugana jotzen dute. Zeharo lotuta gaude, asteko egun guztietan. Jende gehiagorekin egutegi bat egingo genukeen.

**Zenbat bazkide zarete?**

390 inguru.

**Bada jendea...**

Bai, semea jokalaririk duten gurasoek ere bazkide egin behar dute, eta jokalariek ere bai.

**Otsailean egin zenuten lehen deialdia. Oso jende gutxi joan zen?**

Bai. Bileran egin baino lehen jendea bilatzen saiatu ginen, baina ez genuen ezer ere lortu. Eta ekainaren 6an batzar berezia egingo dugu, eta ea zer lortzen dugun.

**Ez da derrigorrezkoa joatea?**

Ez.

**Bazkide guztiak jakinaren gainean daude?**

Bai, gehienak bai.

**Ekainaren 6an inflexio puntua izango da, aurrera edo atzera egiteko...**

Ezin dugu bilera horretatik etorkizunerako plangintza bat egin gabe irten. Moduren bat bilatu beharko da, gurasoak derrigortu beharko dira edo antzeko zerbait. Esku hutsik ezin dugu irten.

**Zozketa egitea izan liteke aukerretako bat?**

Bai. Edo enpresa baten zerbitzuak kontratatzea. Baina zerbait egin behar da.

**Zuek kobratzen duzue?**

Ez.

**Zuek ez jarraitzeko erabakia hartu duzue...**

Bai, bestela zoratu egingo ginatke. Ezin go genuke horrela beste urtebete iraun.

**“Gaur egun bost lagun daude lanean, eta zoratzeko moduko egoera da”**

**Haundiri zertan eragiten dio egoera honen, emaitzetan akaso?**

Ez dut uste, pasa den urtean ere egoera bera pasatu zen eta zuzendaritza bera zegoen. Haundiko jokalariekin hitz egin dugu eta zer egiteko asmoa dugun adierazi diegu. Ulertzen dute egoera. Euren ez dakite zer egingo duten. Sasoi honetan talde guztiak jokalaririk bila dabilta.

**Haundiko jokalariek ilusioa badute ala etsita daude?**

Pixka bat itxaroteko esaten diegu. Baina presidenterik ez dagoenez, egoera tamalgarria da. Eurak geratuko liriteke. Hamabost egun itxaroteko esan diegu. Ea denon artean zerbait egiteko gai garen.

**Zenbat talde ditu Elgoibarko Kirol Klubak?**

Zortzi, gehi futbol eskola. Domeketan lehenengo urteko alebinek entrenatzen dute. Entrenamenduak aste guztian zehar daude. Futbol eskolan 30 ume inguru daude; gero taldea osatuko dute.

**Afizioa egon badago, gutxienez?**

Bai, baina zuzendaritza taldea egiteko ditugun arazoekin, ezin da afiziorik sortu. Proiektu egonkor batekin jendea ilusionatu liteke. Momentu honetan arazoak besterik ez daude.

**Gurasoek, gutxienez, eramaten dituzte autoz euren semeak jokatu behar duten herrietara?**

Bai, noski, ez dugu jokalaririk autobusez leku guztietara eramateko aurrekontu nahikorik.



MARI JOSE EZENARRO

### “Familiari zor nion”

**Mari Jose denda-tokiak ateak itxiko ditu bihar, zapatua. Egun horretatik aurrera Mari Jose Ezenarrok kalean agurtuko ditu 26 urtetan bezero eta lagun izan dituen herritarrak, mostradoretik urrun. Urte mordoaren eta irribarre askoren ostean, heldu da eguna. Orain dela urtebete hartu zuen lagatzeko erabakia, baina kosta egin zaio, zoriontsu izan delako. Jende askori ere kosta egingo zaio. Orain bere familiarekin pasatu gura du denbora gehiago.**

Andoni Iturbe

**E**gia da zapatu honetan lagako duzula?”. Bezero asko agurtzera pasatu dira azken egunotan dendatik, sinetsi ezinik. Izan ere 26 urtean gozoak saltzen ibili eta gero, Mari Jose herritar askorentzat etxekoa zen. Orain familiari zor dio denbora gehiago, eta bihar itxiko du denda behin betiko. Negar malakoak isuriko dituela uste du, orain arte bizi izandako guztiaren ordainetan. “Zoriontsu izan naiz, baina heldu da garaia. Osasunagatik, eta familiarekin egoteagatik hartu nuen erabakia orain dela urtebete. Familiari zor nion”, adierazi digu. Jendeari Gabonetatik aurrera esan bazion ere, dendara sartu orduko gogoratzen diote: “Baina, Mari Jose, orain nora joan behar dugu?”. 26 urteotan ez du hutsik egin.

#### Banketaren memoria

Dendatik makina bat banketa pasatu dira. Haurrek mostradorera heltzeko erabiltzen zuten, eta nagusienek berriketan aritzeko. Urte-en poderioz, lauzpabost pasatu dira. “Derrigorrezkoa da, jendeak faltan botako luke ez balego”, dio. Haur ziren asko kozkortu egin dira eta gero seme-alabekin sartu dira dendara. Belaunaldi asko ikusi ditu Mari Josek irribarrerik galdu gabe. Haurrekin primeran moldatu izan da. Sekretua? “Haurrei entzuten ere jakin egin behar da, eta zakarra bazara eurekin, eurak ere ez dira isilik geratuko. Umeak jatorrak dira lehen eta orain”, argitzen du. Hainbeste urte eta gero liburu bat idazteko istorioak ditu, baina “izenik jarri gabe”.



### Bizitza guztian dendari

Mari Josek irakasle ona izan zuen etxean, ama Elgoibarko azokan ere ezaguna zelako. Etxeberrian jaio zen Mari Jose, eta Elgoibarren azken 43 urteak pasatu baditu ere, aurrez Bergaran ere ibilitakoa da. Hamalau urtean egin zuen lan han. Gozoki-denda ireki aurretik, drogeria batean eta janari-denda batean ere jardun zuen. Gozo artean egon da, baina ez da gozo-zale amorratua. Emakume pinpirina da.

Bilobak, sei eta bederatzita urtekoak, Zarautzen bizi dira, eta hara joateko denbora gehiago izango du. Mari Jose ez da oraindik jubilatuko.

62 urte ditu, eta denda itxiko du. Baina urte asko izan dira bat-batean ahazteko.

Hasieratik laguntzaile bat izan du dendan, goizean, pastelak banatzeko. “Hasieratik dendan, aldizkariak, pastelak eta goxokiak, eta jokoak saldu dira. Gero ogiarekin hasi nintzen”, azaldu du.

Denda itxi aurreko egunetan joko gutxi geratu zaizkio, beherapekin ziztu bizian saldu direlako. Jeneroa zapatua baino lehenago saltzen badu, denda gaur bertan itxi lezake. Ez du agurrik esan nahi, gero arte baizik.



Sasoi batean, haur batzuek dendara sartu gabe lortu nahi zituzten gozokiak. Ate sarrean, letreroaren gainean, *gozoki* asko zeuden agerian, eta harrika hasten ziren lurrera eroriko zirelakoan. Baina kortxoak ziren, papez bildutakoak. Egunotan ere ume asko pasatu dira, gozoki bat eskatu eta bestea doan jaso dutelako. “*Coca-cola* emango diguzu orduan, Mari Jose?”, galdetzen dio nerabe batek. Ondoren beste haur bat pasatu da amarekin, *Dos por uno* eskaintzak zeudelako.

## Osasunarengatik eta familiarengatik hartu du denda ixteko erabakia

### Litxarriak

Lehenengo umeek poloa edo mantekaua eskatzen zuten, eta orain flashak edo paketeak. “Orain gominolak edo kromoak gehiago saltzen dira. Modan dagoena. Telebistan zer irten, hura erosi”, azaltzen du.

Mezatatik irten bezain laster, haur asko ere bere dendatik pasatzen ziren, gozokiak zapoak dastatzeko eta Mari Joserekin berba egiteko.

Jendearekin egotea eta berba egitea gustatzen zait. Nik aukeratu dut lan hau, eta pozik egon naiz”. Bere aurpegiari begiratzea besterik ez dago, egun hauetan begiak inoiz baino biziago eta bustiago baditu ere. Jendea etengabe sartu eta irtetzen dabil bere dendatik. Jende hori, “Iñaki, Laida, Aitor...” ez dira bezero hutsak izan.

Eta hainbeste urtetan jasotako maitasuna itzultzen dabil. Bihartik aurrera Mari Jose Ezenarro izango da. “Lasai ibili nahi dut, nahiz eta seme-alabek esaten didaten ikastaro hau eta bestea egiteko. Bilobekin egiteko gogoia dut, nire familiarekin”. Seme-alabek ere mostradorean ikusi izan dute ordu askotan, astelehenerik domekara, gozoki, aldizkari eta joko artean. Holantxe eskerrik asko, Mari Jose.

### ESKERRAK

Herritar guztiei eta bereziki Murrumendiarazi eskerrak eman nahi dizkio “hain lankidetzaz estua” izateagatik, “bihotz-bihotzez”.

### ETORKIZUNA

Oraindik ez du pentsatu zer egingo duen dendarekin.

Gutxi egingo lukete lana berak bezala.







BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### AHT stop!

Denbora aurrera doa, eta Lakuak gero eta babes gutxiagorekin ikusten du bere burua. Horren sinonimo dira maki-na bat herritan egiten ari diren zundaketa ilegalak; Ertzaintza, lurjabeei Entzutegi Nazionalera bidaliko dituztela mahatxu eginez lur pribatuetan ilegalki sartu direnak babestu nahian. Azkenean lurjabeen irmotasunari esker gezurrak hanka tartetan sartu eta ospa egitea besterik ez zitzaien geratu, Aramaion eta Eskoriatzan nahitaezko desajabetezkin –lapurretekin– egin zuten bezala.

Bitartean, Arabako Foru Aldundia AHTren inpaktua bortitza izango dela esatera ausartu da, eta gero eta sindikatu, eragile eta alderdi politiko gehiagok beraien desadostasuna adierazten dute proiektu horren aurka (Basaurin, EAK, EBk, Aralarrek eta ANVk, esaterako).

Jada ez du balio proiektu horren kontra zaudela aho txikiarekin esateak, kalera irteteko momentua iritsi da, proiektu hori behin betiko gelditzeko. Datorren zapatuan, maiatzak 31, Donostian egingo den manifestazioan parte hartzera deitzen dizugu. Elgoibartik autobusa irtengo da Donostiara 16:15etan.

*AHT ez ordaindu* lemapean desobediencia kanpaina martxan denez, beste protesta aukera bat Eusko Trenen joatea da. 15:24an Toletxegainen elkartuko gara.

Bide guztietatik jo dezagun AHTren aurka. Orain da momentua.

**Elgoibarko AHTren aurkako taldea** ☪

### AHTrekin etorkizunik ez... etorkizuna: independentzia

Euskal Herritar gehienek erakutsi dute Abiadura Handiko Trenaren kontra jarrera. Baina beti bezala, faxisten jarrera hartuz, azpiegitura horren ardura-dunek entzungor egiten diote herri eskariari eta inposizioaren bidean jarraitzen dute.

Zergatik gertatzen da hori? AHTren atzean interes ekonomiko izugarriak ezkutatzen direlako. Eraikin enpresek eta PNV, UPN eta PSOEri lotutako lurjabe handiek herri sektore eta langileen poltsikoetatik aterako diren 9.000 milioi euroekin euren bizitzako negozioa egin nahi dute.

AHTk beste hainbat interes politiko ere ezkutatzen ditu. Euskal Herriak pairatzen duen burujabetza gabeziaren eta menpekotasun egoeraren islarik argiena da, hau da, Euskal Herriaren kaiola den konstituzioa eta berak bermatzen duen marko juridiko-politiko iraunarazteko beste tresna bat gehiago da.

Gainera, proiektu honen inguruko erabakiak inolako informazio eta parte-hartzeko aukerarik gabe garatu dira. AHTri buruz erabakitzen uzten ez badigute?

Burujabetza ezak Euskal Herria AHTren eredura kondentzen du. Langile eta herri sektoreen etorkizuna baldintzatzen du eta, ondorioz, Euskal Herriarena. Indarrak bildu behar ditugu eta AHT gelditu, baita berau eraikitzen ari direnak salatu ere: PNV, PSOE, UMP, Amenabar, Euskotren...

Aldaketa sozial eta politikoaren alde egingo dugu, gatazka gairatzen era-mango gaituen bidea marraztuz, marko demokratikoaren alde eginez, AHTren kontra doan eredu ekonomiko eta sozial baten alde. Kolektibotasunean, ingurugiroaren errespetuan, aberastasunaren banaketan... oinarritzen den jendarte eredu eraikiko goaz!!! Maiatzaren 31n, denok Donostiara

**Gazte independentistak** ☪

### Eskerrik asko!

Morkaiko Mendizale Elkartearen ize-nean eskerrak eman nahi dizkizuegu Elgoibarko Itzulian parte hartu duzuenoi eta baita lagundu diguzuenoi ere: Aldapazahar elkarteak, Martin Galarza eta Luis Fernando Mendibil batez ere, Gure Bide, Karakate eta Kalamua soziedadeak, Oa Txiki eta Irunabe baserriak, Altoloko Urak, Iñigo Irueta bereziki, gure egarriak asetzearren, Sahatzu urdaitegia, horren bazkari goxoa prestatzearren, Udal Kirol Patronatua, Elgoibarko Udala, Eroski, Netto, Lanbroa kafetegia, Beristain Edariak, Idarraga kafeak, Patxi, Isabel Ormazabal, Landa, Iraola eta Ziarda harategiak, Dori urdaitegia, Julio Bueno ardoak, Pilar eta Bollar frutadendak, Roberto Garcia Riesgo "Txeto", Zigor Cornejo eta nola ez, hornitze puntuetan eta asistentzia lanetan lagundu diguzuenoi: Jaime Martinez, Valentin Txurruka, Sabin Txurruka eta Javier Etxeberría.

**Morkaiko M.E.** ☪

# Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Faxa: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:







Oihana  
Tarragual

*Riiiiing!* Duxa, gosaria, lanera, auto ilarak, haserrea...

Lanetik bueltan, kiroldegia: bat bi

bat bi, dutxa, etxera, afaldu eta ohera. Eguneroko kontua.

*Pii, piii, piiiii...* sms bat.

"Ez, ez dut denborarik zurekin kafetxo bat hartzeko. Mx" Maite-nak ere agenda potolo-potoloa du, denborarik ez niretzat.

Etxea garbitu, biharko erosketak egin eta taperra prestatu... Stop! Logelan sartu, argiak itzali eta amasa hartu dut.

Ixilpean nago eta ixiltasuna gauzak xuxurlatzen hasi zait belarrira: aspaldian ez dugu elkar ikusi. *Piii, piii, piiiii...* sustoa eta mugikorreko abixua: bihar bilera zazpigarren gelan.


## “Orientalek meditazioari orduak eskaintzen dizkiote egunero. Guk ez. Zertarako?”

Orientalek meditazioari orduak eskaintzen dizkiote egunero. Guk ez. Zertarako? Supermerkatura, errentako deklarazioa egitera edo ITV pasatzera joan behar badugu.

Tok-tok! Gaueko bederatzitxi erdiak. Bizilagunak ez du gatza erosteko denborarik izan eta zain dituen gonbidatuak. Gatza eman diot eta ziztu bizian alde egin du. Stop!

Ohera sartu naiz, kosta zait lo hartzea baina bai, ametsetan hasi naiz. Nire aurrean itsaso zabala, goian zeru urdina eta esku artean liburu bat. Ez dago inor nire ondoan. Ez dago bilerarik, ez dago mugikorrik eta ez dago alperrikako hitzik. Ixilpean nago.

*Riiing!* Pozik esnatu naiz. Azkenean, ametsetan bederen, lortu dut ixilik egotea. Baina gosaltzen ari naizela nire bikoteak gau osoa hizketan eta bueltaka pasa dudala esan dit.



Ibai  
Portu



Uf!! Zuk bai sartu didazula niri estresa gorpuztean! Oihana gelditu meseezeez!! Baina txarrena da arrazoa duzula.

Estresa bizitza modernoaren ondorioa da, eta nekatu egiten du. Ehunka gauza egin nahi ditugu, ordutegiak handik eta hemendik, lanera sartu eta produzitu egin behar da, eta azkenean gu geu bihurtzen gara erritmo zoro horren morroi. Egin dugunaz gozatzeko ahalmena desagertzen ari zaigu; eta egin ez dugunaz kezkatzekoa, handitzen.

Egun luze baten ostean, etxeko telefonoa jotzen entzuteak edota ondoko bizilaguna ate-joka gatz eske izateak ernegarazten gaitu. Eta erritmo zoro horien ondorioz bizkarreko minak eta buruko minak pasatu arren, berdin da: guk ez dugu ikasiko. Baina norra goaz hain azkar? Zer galtzeko beldurra daukagu?

## “Estresa bizitza modernoaren ondorioa da, eta nekatu egiten du.”

Gizakia gizaki izan denetik, beti korrika ibili da. Gaur azkarrago gabiltza teknologiak eta gizarteak azkarrago ibiltzera bultzatzen gaituelako. Naturan, zuhaitzek ere, denak batera landatuz gero, urteekin ahulena itzalpean ito egiten dute, hil arte. Baina horien kasuan biziari eusteko da, hil ala biziko kontua. Guk, konturatu gabe, honetan bihurtzen dugu gure denbora: hil ala biziko kontuan.

Norberak jakingo du bere bizitzan estresik sentitzen ote duen ala ez. Erremedioa? Parranda eder bat egitea, mobila etxean utzi eta paseadan joatea, edo erreka presara besterik gabe jo ta saltu egitea.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Ekainetik aurrera doan jaso ahal izango da hurrengo eguneko pilula.

## Zer iruditzen zaizu hurrengo eguneko pilula doan eskaintzea?



### Gorka Etxabe

20 urte, ikaslea

Ondo, baina arazoa larriagoa da. Jendeak gehiago kontzientziatu beharko lukete, eta antisorgailuak erabili. Gainera, pilula beharrezko kasuetan bakarrik erabili beharko litzateke.



### Maria Jesus Segundo

27 urte, langabetua

Bai, pilula hori behar denean bakarrik erabiltzen du jendeak, beste erremediorik ez dagoenean. Ez dut uste jendeak neurritz kanpo erabiliko duenik. Beharrezkoa zen.



### Daniel Sanchez

18 urte, ikaslea

Ez dut uste jendeak abusatuko duenik. Hurrengo eguneko pilula azken pausoa da. Jendeak jakinaren gainean egon behar du, eta behar denean bakarrik erabili.



### Silvia Garcia

29 urte, mediku bisitaria

Ondo. Uste nuen Bizkaian dagoneko doan zegoela. Kontrolpean egon beharko luke, abusatu gabe, nahi adina ez eskatzeko. Hezkuntzaren bidez gazteak kontzientziatu egin beharko lirateke.

10<sup>eko</sup>  
TXIKIAN



MILAGROS  
OIZARZABAL

Jubilatua

#### 1. Herriko txokorik gustukuena?

Madalako parkea da nire herriko txokorik gustukuena. Andra batzuk pozik egoten dira kafetegi aurrean umeak jolastean dabiltzan bitartean.

#### 2. Zer falta zaio Elgoibarri?

Aparkalekuak falta zaizkio, eta errespetu gehiago. Nagusiok erakutsi behar diegu umei zaborra zakarrontzira botatzen, baina nagusiak ere ikusi izan ditut zakarra lurrera botatzen. Gero alferrik esango diote hori ez egiteko.

#### 3. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Gazte batzuk asko mugitzen dira. Jendeak interes gehiago jarri beharko luke proiektuetan: zertan eragingo digun, nolakoa izango den... Gero kexatzea alferrik da.

#### 4. Nor da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Gotzon Garate, euskara eta kulturaren alde egin duen lan guztiagatik. Gainera, gizon jakituna eta umila da.

#### 5. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Gabon Zahar eguna.

#### 6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, baina txiki geratu da kiroldegia. Igerian ikasten dabiltzan umeak txanda eskatzen ibiltzen dira. Mendarorak ere joaten dira.

#### 7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Bai, aukera asko dago. Gaur egun gure sasoiaren baino eskaintza zabalagoa dago. Kontzertuetara joaten naiz.

#### 8. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez dut uste. Garbitzen ari dira, baina bainatzeko moduan ez dago. Txikitik bainatu izan ginen.

#### 9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.

Oso giro ederreko herria dela esango nioke. Japoniar baten lagunak ginen senarra eta biok, eta ez zuen ulertzen eurek hamar egun jai eta herriko umeek hiru hilabete jai edukitzea.

#### 10. Ipiniozu nota gure herriari 0tik 10era.

8.





**Santa Ana kaleko errotondako zabor kontenedoreek ikuspena gutxitzen dute:** “Santa Ana kaletik errotondara ateratzerakoan, ez da ikusten Trenbide kaletik autorik datorren ala ez, eta arriskutsua da. Gainera, zebra-bide gainean jarri dituzte zabor kontenedoreak, oinezkoen bidea oztopatuz. Lekuz aldatu behar direla iruditzen zait”.



**Urasandiko parkean etxeko leihoetara sartzen den zuhaitz handi bat dago:** “Hamaika urte daramatzat Urasandin bizitzen, eta nehin ere ez dute zuhaitza inausi. Etxeko leihoraino iristen da, eta polen mordoa botatzen du. Alergia daukat eta ezin izaten naiz leihora irten. Dagokionari zuhaitza kimatzeko eskatuko nioke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@igolbarkolzarra.com](mailto:barren@igolbarkolzarra.com)  
943-74 41 12

*ikastaro trinkoak uztailean*

**ILS**  
HIZKUNTZ  
SOLUZIOAK

alemanez,  
frantsesez,  
ingelese,  
eta italianoz  
*(maila guztiak)*

40 ordu  
taldeko

Uztailaren  
1tik - 24ra  
Izen ematea  
20a baino lehen

**TXINERA**  
Ekainak 23tik Uztailak 17ra  
Asteartea eta Osteguna  
17:00tik 19:00ra (16 ordu)

**Informazioa:**  
tel. 943 744040  
faxa 943 741654  
e-mail: [ils@ils.es](mailto:ils@ils.es)  
[www.ils.es](http://www.ils.es)



## Mikel Ibañez preso elgoibartarrak minbizia dauka eta hilzorian dago

Bere askatasuna eskatzeko manifestazioa izango da gaur

**E**lgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek prentsaurrekoa eskaini zuten eguaztenean, Mikel Ibañez preso elgoibartarraren egoera salatzen. Jakinarazi duten bezala, Mikel Ibañezek minbizia dauka, eta “egoera oso larrian dago; hilzorian, Madrilgo Gregorio Marañon erietxean”. Mikel Ibañezi ebakuntza egin zioten orain dela egun batzuk ospitalean eta Soto del Real presondegira bidali zuten berriro, bere osasun egoeraren argibide eskasak eman zituztela salatu zuten.

Mikel Ibañez muturreko egoera horretara iritsi izanaren erruduna espetxe politika dela adierazi dute Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek, “espainiar eta frantziar estatuen politika hiltzailea”. Uruguain atxilotu eta Pariseko aireportuan jaitsi eta kartzelan sartu bezain pronto hasi zen Mikelen osasun asistentzia falta: “Orduantxe hasi ziren Mikel erahiltzen. Garbi dago euren asmoa, preso txikitzea eta birrintzea”.



### 20:00etan manifestazioa

Mikel Ibañezek kartzelan bizi duen egoera salatu eta elkartasuna adierazteko manifestazioa deitu du Amnistiaren Aldeko Mugimenduko gaur arratsalderako. 20:00etan hasiko da Plaza Handian, eta herritar guztiei dei egiten diete mobilizazioetan parte hartzeko.

ETAko kide izatea egotzita eta Baltasar Garzon epaileak zabalduetako eu-

ro aginduekin, atxilotu zuten Mikel Ibañez Oteiza, Uruguain 2007ko martxoan. Hegazkinetik jaitsi zenean atxilotu zuten Parisen.

Azken hilabeteotan Madrilgo Soto del Real espetxean egon da. Bere osasun egoera ikusita, “eta bizirik nahi dugulako”, Mikel Ibañez askatzeko eskatuko du Amnistiaren Aldeko Mugimenduko deitutako manifestazioak.

## IMHk 3,3 milioi euroko inbertsioa egin du lantegiko tresneria egokitzen



Eguazten arratsaldean Fabrikazio eta Muntaiako Eguneratze Planaren aurkezpena egin zuten IMHko lantegian. Plan hori 2006. urtean jarri zuten martxan, eta 3,3 milioi euroko inbertsioa egin dute. IMHko lantegiak 1.725m<sup>2</sup> ditu eta bertako ekipamendu guztia eguneratuta dago. Ekipamendu berriaren bidez prestakuntza eta zerbitzuak eskainiko ditu erreminta maki-

na, automobil, aeronautika, eoliko, moldegintza eta medikuntza sektoreetan.

Aurkezpen ekitaldian lantegi berriaren helburuak azaldu zituzten:

- Hasierako Lanbide Heziketari eduki berriak gehitzea.
- Enpresa, profesional eta irakasleentzat Prestakuntza Iraunkorreko katalogoa garatu eta ezartzea.
- Berrikuntzaren barrutian eta sektore industrialeko enpresa txiki eta ertainentzako zerbitzu teknologikoen eskaintza garatu eta ezartzea.
- Fabrikazio eta muntaia prozesuetan praktika on eta teknologiarren transferentziari buruzko zabalkunde jardunaldiak antolatzea.
- Profil profesional berria garatzea.

Ekitaldi horretan, Iñaki Mujika Eusko Jaurkitzako Lanbide Heziketako Sailburuordea, Alfredo Etxeberria Elgoibarko Alkatea eta Xabier Ortueta, AFMko zuzendaria izan ziren, besteak beste.



## Txokoa **Biardana Elkartea**



Apirilaren 6an piztu zen sutearen ondorioz, bi hilabete inguru itxita egon da Biardana Elkartea. Zuzendaritzako esanetan, lanak amaitu dituzte dagoeneko, eta gaur iluntzean, maiatzak 30, zabalduko dute berriro elkartea. Sutearen ondorioz, Biardana Elkarteko sukaldea erre egin zen. Suhiltzaileek sua mendea hartu zuten arren, inguruko bizilagunak euren etxeetatik atera zituzten badaezpada. Zorionez, kalte materialak bakarrik eragin zituen suak eta ez zen zauriturik gertatu.

**Zenbakia 162 m<sup>3</sup>**

Bukatu dituzte Altzolako Aurretxe etxea garbitzeko lanak, eta guztira, 162m<sup>3</sup> zabor atera dute bertatik. 15 egun behar izan dituzte etxea garbitzeko, eta lan horren kostua 7.000 eurokoa izan da. Elgoibarko Udalak jakinarazi du etxe jabeek hartuko dutela euren gain ordainketa. Altzolako okupak Aurretxe etxetik joan ondoren, Debako etxe batean bizi dira.

## Irudia **Miskiren kanpaina berria**

Gemma Agirregomezkortak gidatzen duen Miski Elkartek kanpaina berria jarri du martxan, Cuzco (Peru) herriko umeak eskolaratzen jarraitu ahal izateko. Trinitate jaietan hasi ziren errifak saltzen, eta zozketa abuztuan egingo dute. Bi laguntzako 21 afari zozketatuko dituzte. Horietatik hemeretzi Elgoibarko jatetxeek eskaini dituzte, eta beste biak Donostiako Londres Hotelak eta Arbelaiz jatetxeak. Elgoibartarrek eskaintzen dioten laguntza eskertu nahi du Gemmak, eta bide batez, norbaitek umeren bat apadrinatu nahi badu berarekin harremanetan jartzeko aukera dagoela gogorarazi nahi du, 943 74 03 31 telefonoan.



## **Udako Euskal Unibertsitatera joateko diru laguntzak**

Aurten Udako Euskal Unibertsitateak 35 ikastaro eskainiko ditu. Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula ordaintzeko beka eman go die Elgoibarren erroldatuta daudenei. Langabetuen, ikasleen, pentsiodunen eta jubilatuena kasuan, matrikula osoa ordaintzeko diru-laguntza izango da. Langileen kasuan, berriz, Udalak matrikularen erdia ordainduko du. Izena emateko epea ekainaren 20ra arte zabalik dago. UEUren web gunearen bidez egin daiteke ([www.ueu.org](http://www.ueu.org)). Honi buruzko informazio gehiago Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuan: 943 74 43 66.

## **Edorta Kortadiren hitzaldia**

Edorta Kortadi Deustuko Unibertsitateko arte irakasle eta adituak, San Bartolome elizako erretaulan egin diren berrikuntzak azalduko ditu, "arte eta liturgia fedearen zerbitzuan" hitzaldian. Ekainaren 5ean izango da zita, San Bartolome parrokiaren iluntzeko 20:00etan. Bestalde, ekainaren 8an, domekan, goizeko 11:00etan parrokiaren egin diren lanak inauguratuko dira.

## **1953an jaiotakoak**

1953an jaiotakoek euren 55. urteurrena ospatuko dute ekainaren 7an. Eguerdian meza izango dute, ondoren gosegarria Biardana Elkartean, eta gero bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

## **Eibarko Musika Banda**

Datorren domekan Eibarko Udal Musika Bandaren kalejira izango da 11:00etan, eta 12:30ean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Bost kantu joko dituzte:

1. Guadix
2. Gigantes y cabezudos
3. The Olympic spirit
4. West side story
5. El barbero de Sevilla

## Gure berbak

### Aditza (18): aditz gehiago

Aurreko asteko kontuari segittuko diogu gaurkuan: ahazte bidian daukaguzen aditzen gaiñian jardun gendun, eta gaur ere halaxe segittuko dogu. Kontua da askotan gure aittitta-amamak erabilitako aditz jator asko ez dittugula erabiltzen gaztiaguok, eta horren ordezerderatik (edo euskera batutik) hartzen dittugula, batere biharrik gabe. Ahalegindu gaittezen horrek berreskuratzen!

Adibidiekin beti izaten da ulertzen errezagua, eta hona batzuk:

- *Kontuz erretzakin, hautsa aterako dozu eta.*
- *Lanian dago mutilla eta lagaizu bakian.*
- *Gaur estrenau mendiko praka berrixak, eta ota artian apurtu jataz.*
- *Kumunian egunkarixa irakurri dot, eta azkenian iztarra lotaratu jata.*
- *Goizeko seiretan irten gendun oporretara, Elgoibartik.*
- *Beti dabiz berdin: oiñ hasarratu, oiñ la-gunak egiñ.*

Horren aldian, nik nahixago ondo-  
rengo hauek erabiliiko bagenduz:

- *Kontuz erretzakin, **hautsa harrotuko** dozu eta.*
- *Lanian **dihardu** mutillak eta lagaizu bakian.*
- *Gaur estrenau mendiko praka berrixak, eta ota artian **urratu** jataz.*
- *Kumunian egunkarixa irakurri dot, eta azkenian iztarra **txinduritu** jata.*
- *Goizeko seiretan **abantau** giñan oporretara, Elgoibartik.*
- *Beti dabiz berdin: oiñ hasarratu, oiñ **axkirau**.*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1992

Aste honetako erretratu Xabier Eizagirrek laga digu. Ez da oso zaharra, baina CD Elgoibarren egungo egoera ez da oso ona, eta erretratu honekin urte opa-roak gogoratu nahi izan ditugu. Xabier Eizagirren esanetan, oso gustura joaten ziren Lerun zaharrera talde hori jokatzeko ikustera.

Gogora ditzagun mutil gazte horiek:

Goian, ezkerretik eskumara: Iñaki Salegi (atezaina), Iker Beitia, Iñaki Gil (Debarra), Aitor Arregi (Getariarra. S.D. Eibar eta Villarrealen jokatu zuen ondoren). Anjel Eguren, J.M. Arakistain (entrenatzailea. Realeko jokalaria ohia), Agirregomezkorta (mutrikuarra), Arregi eta Antxon Gurrutxaga.

Behean: Fermin Yerobi (zarauztarra), Migel Bedaio (plaentxiarra), Alfredo Aznal, Xabi Alonso, Unai Zulaika, J.M. Aizpurua (presidentea), Ion Belaustegi (Realeko jokalaria izandakoa), Anjel Ibarluzea, Edu Alonso eta Iñigo Villaba.



## ESKERTZA



2008ko maiatzaren 21ean hil zen, 85 urte zituela,  
*Nikolasa Ansola Arzuaga* andrearen  
sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







*EZKONTZAK* 08






# Bilbao Express Bidaiak

*Gurekin  
topatuko dituzue  
leku ezezagunenak*

Plaza Handia, 3 - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 39 12 - [www.viajesbilbaoexpress.com](http://www.viajesbilbaoexpress.com)




**ARNOPE** **NAVA**  
IN PRIMATEGIAK

<p>— ARNOPE —</p> <p>Jose M<sup>o</sup> Altzibar, 6 - II. Blokea Telf. eta Faxe: 943 603 194 e-mail: <a href="mailto:arnope@terra.es">arnope@terra.es</a> - ☒ 56 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)</p>	<p>— NAVA —</p> <p>Santa Ana, 44 - ☒ 208 Telf. eta Faxe: 943 744 451 e-mail: <a href="mailto:nava@euskalnet.net">nava@euskalnet.net</a> 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)</p>
---	---



[www.gadifot.es](http://www.gadifot.es)




**GADIFOT**

ARGAZKILARITZA - BIDEOA  
Iraiki Galparsoro

Komantukoa, zig  
Ttoca, 943 17 05 71  
Ermua - Bizkaia





☎ 943 202 727 • FAXA 943 208 991  
Arrate auzoa, z/g • 20600 EIBAR (Gipuzkoa)



2 Suite jakuziarekin  
4 Gela hidromasajearekin  
Gela 1 elbarrituentzat egokituta

**WI-FI doan eraikuntza osoan**

250 pertsonentzako aretoa  
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina) 60 €  
Eguneko menua 17 €  
Karta 30-36 €



**DENBORALDIKO SUKALDEA**

Jon Odriozolak zuzendua  
Berezitasunak:  
**GARAICO EHIZA**



# Andregaiaren lore-sorta

Zure bizitzako egunik garrantzitsuena da, eta ezerk ezin du huts egin. Dena kontrolpean izan behar da. Ondorioz, ezkontza erramuari ere atentzio handia jarri behar zaio. Jarraian pista batzuk emango dizkizugu.



Larrosa zuriak, horiak, melokotoi kolorekoak, kamelia dotoreak, kalak edo margaritak. Edozer izan daiteke balekoa, baina loreak aukeratu aurretik, ezkontza soinekoa nolakoa den izan behar da kontuan. Ezkontza egunez ala gavez izango den ere garrantzitsua da.

Soinekoa zeta naturalezkoa bada, eta eskote klasikoa badu, loreek ondo apaindu behar dute. Gona printzesa estilokoa bada, berriz, lore-sortak luzexka izan behar du, hau

da, soinekoarekin asimetria eragingo duten lore luzeek osatuko dute sorta.

Gona sirena estilokoa bada, larrosa zuriak edo beste edozein koloretakoak oso ondo datoz. Soinekoa erabat zuria bada, larrosa bakoitza kolore batekoa izatea modan dago.

Ezkontza mendian bada, margaritak eraman daitezke. Al-diz, elizan bada, erdi aroko ukitu bat eman ahal zaio ezkontzari, lore lehorren bitartez.



Ezkontzetarako apainketak:  
Erramua, eliza eta jatetzeko  
apainketa, autoa...

**ESKA EZAZU LASAI  
AURREKONTUA**

943 740 189 / 688 631 307  
Merkatu plazan!

**PAGOA**  
LORADENDA & LORATAINZA



**DEBAPE**  
INPRIMATEGIA  
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTJETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Sigma Ind., Xixilion 2, 2. (7.lokala) • Tel.: 943 74 40 58  
• Faxa: 943 74 41 78 • debape@debape.com • www.debape.com

*Kala* 

LORADENDA



San Frantzisko, 24  
Tel. 943 744 516



# *Kantabria* *Jatetxea*



*ARRATEKO SANTUTEGIAREN  
ondoan aurkitzen gara*



**Edozein ospakizunetarako  
aukera**



*Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
zilarrezko ezkontzak,  
urrezko ezkontzak, karta,  
enpresa bazkariak...*



*Arrate Auzoa, 4 Tel. 943121262  
Arrate - Eibar 20600*

# Edergintza

**S**eguruenik, zure bizitzako egunik garrantzitsuenak da zure ezkontzako. Hori dela eta, zaintzea eta azala tratatzea garrantzitsua da, egun horretan distiraz betea egoteko.

Tratamendu ohikoenak azalduko dizkizuet jarraian. Pack-en artean aldean egon liteke, andregaiaren araberaren pertsonalizatzen dira-eta.

## Elikadura

Oso garrantzitsua da garbi jatea eta egunean litro bat ur edatea, azala ondo hidratatuta eta garbi egoteko. Andregaiak kiloren bat edo beste argaltzen dute. Horretarako, hauxe da eskaintzen dudana tratamendurik onena: gorputz mesotera-

pia + dieta. Emaitzak ikusgarriak dira. Izan ere, koipea eta zelulitisa desagertzen dira eta, era horretan, gorputzaren silueta eta forma berreskuratzen dira. Gorputz bolumena txikiagotzea sekulakoa da eta, gainera, lehen saioan bertan igartzen da. Hilean birritan egiten da.

## Aurpegia

1.- IBC egin beharra dago: azalaren diagnostiko zehatz eta erabakitekoa.

2.- Skin Renew: microdermoabrasioaren bidez, azala esfoliatzeaz gain, zikinkeriak, bizitzarik gabeko zelulak eta larruzal-inperfekzioak kendu egiten ditu, azala berriztu eta argiztatzeko. Era horretan, leuna-

goa, distiratsua eta ukitzean goxoagoa geldituko da.

3.- IBCren arabera, beste tratamendu batzuk egingo dira, esaterako: Kolageno estalkia, hidratazioa, gazteagotzea, liftinga, erreilenoa...

4.- Tratamendu berritzaile eta puntako teknologiaduna: MESOTERAPIA + AURPEGI RADIOFREKUENTZIA. Bitamina koktel zoragarria da, argitasun gutxiko azalentzat.

## Betileen tinte eta permanentea

Astebete lehenago betileak kizkurtuko ditugu, espresio politagoa lortzeko. Gainera, tindatu egingo ditugu distiratsua egon daitezen eta argitasun handiagoa eman diezaguten.



**AZALEA** Edergintza  
M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behean - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 03 10

Helbidea: San Roke, 5 - 3. A - 20870 ELGOIBAR

**GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA**  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizariakoa) - Mikropigmentazioa



Santiago Kalea, 14  
AZOITIA - Tel.: 008 325 020  
www.oparion.com

- Ezkontza
- Ezkontzetarako garbidapenak
- Ezkontza ogurretarako aparatuak
- Barato
- Lehen Jaurtze



**ESKAINZA**

Aurpegiko tratamendua  
+  
Bekainen diskinua  
+  
Gorputz esfoliazioa  
+  
Muxika parafina esku eta oinetan  
+  
Presoterapia bi tratamendu

**95 euro**

*Judith*  
**EDERGINTZA**

Errasorio Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118





## Gorputza

Thalasso Spako Thalmer linea erabiliko dut, MONT SAINT MICHEletik datorrena. Itsasoko ur linearik onena da. Haren luminak ez du parekorik.

1.- *Esfoliatzea*: Azala garbitu eta beriztu egiten du. Leun, fresko eta distiratsu lagatzen du.

2.- *Tratamendua*

a.- oxigenatzea: argitasun gutxi-ko azalak erdertzeko.

b.- bimineralizatzea: denbora gutxian argaldu diren azalentzako.

c.- Hidratatzea: brontzeatzailaren argitasuna handitzeko.

AURPEGIA

GORPUTZA

Noiz hasi tratamendu eztekiekin?

TRATAMENDUA	HELBURUA	AURRERAPENA
Laser depilazioa	Nahi ez den ilea kentzea	6 hil aurretik
Mikropigmentazioa	Bekainak, ezpainak, <i>eye-line</i> . Begirada nabarmentzeko	3 hil aurretik
Skin Renew	Azala argiztatu eta beriztu	2 hil aurretik
Betileak tindatu eta kizkurtu	Begirada ikusgarria lortzea	Astebete lehenago
Bekainak diseinatzea	Bekain perfektuak erakustea	Aurreko egunean
Dieta + mesoterapia	Soberan dauden kiloak galtzea	6-4 hil aurretik
Biguntasunaren aurkakoa	Gorputz irmoa lortzea	6-2 hil aurretik
Esfoliatzea	Gorputza garbitzea	Astebete lehenago
Depilazioa		2 egun aurretik
Manikura eta pedikura	Azazkal perfektuak erakustea	Aurreko egunean
Hidratazioa eta erlaxazioa	Ongizate tratamendua, andregai erlaxatzeko	Aurreko egunean

## Makillajea

Manikura eta pedikura

Judith edergintza

**Imprenta Arrillaga**

■ Ezkontza gonbidapenak ■ Bisita txartelak ■ Zorionak eta zorte on!

■ Hileta oroigarriak ■ Kartelak - etiketak ■ e.a.

Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87 ■ e-posta: arrillagask@euskalnet.net

**Olaia**  
estetiko

**EZKONTZ BONOAK!!!**

- Garbiketak
- Makillajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak
- Laserra

San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25

**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26  
Tel./faxa: 943 74 25 35

**Idama**

Zure ezkontza egunerako tratamendu estetiko eta ileapaintze berrienak!!

**PROBA ITZAZU GURE ESTETIKA TRATAMENDUAK:**

- Gelezko azazkalak.
- Zimurren kontrako Rosa Bulgaria aurpegi tratamendua.
- Itsaso hildaren buztinak aromaterapiarekin.
- Spa pedikura.

# Gorbatak



**K**orapilo mota mordo daude aukeran, baina erabiliena Windsor izenekoa da. Ezagunena eta dotoreena da, askoren iritziz. Korapiloa egiteko gorbatak nahiko luzea izan behar du, laburregi geratu ez dadin. Korapilo zabala denez, alkandoraren lepoak haren tamainakoa izan behar du.

Windsor estilo britainiarren erakuslea da, eta oso erabilia. Italiarre-

nak, berriz, korapilo estuagoak eta txikiagoak dira. Amerikarra edo *Four in hand* Windsorra baino errazagoa da, eta kamiseta guztietan ondo geratzen da.

Gorbata ez da gerrira heldu behar, eta korapiloak lepora lotuta egon behar du, betiere kamisetaren botoia gordez. Gorbataren zati estuenak ere ez du inoiz agerian egon behar.

Ez dira garbitu behar, lehor daukela garbitzen dira edo tindategira eramaten dira, eta ez dira korapiloarekin gorde behar. Gorbataren koloreak daraman pertsonaren izaera islatzen du: kolore biziek izaera irekia adieraziko lukete, eta kolore apalek izaera lasaiago eta zurrunagoa.

Prezioarekin ere kontuz ibili behar da. Prezio baxukoak ez dira onak izaten.

*Jantzi  
Maldagan  
Dendu*

Ana Sebastian  
Guitare  
Escorpion  
Hongo

San Francisco, 20  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 40 98

**ION**  
*Jantzidenda*

San Bartolome, 37 - Tel.: 943 74 03 27  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Errealitate bihurtu zure ametsetako bidaia

**VIAJES ECUADOR** -en

San Bartolome kalea, 5  
Tel.: 943 74 73 22 - 943 74 73 23  
Faxa: 943 74 04 98  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) e-mail: elgoibar@viajesecuador.net

**JOSU** *Jantzidenda*

San Bartolome, 9 - Tel.: 943 74 40 48  
ELGOIBAR

**FOTO JAUJA**  
URKI 17 BAJO EIBAR  
TLF.943 202716 M. 688647344  
**WWW.FOTOJAUJA.COM**





**Garbiñe**  
Estetika

Laster ezkontzekotan bazara, jarraitu zuretzat antolatutakoa **EDERGINTZA PLANA**

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32



**KIRURI**  
JATETXEA

Loiola Hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Tel.: 943 81 56 08  
Faxa: 943 15 03 62



**M4Q**

Avda. Julio Urquijo, 24 bajo - Arkaitea (Gulpiuzcoa) - Tel.: 943 85 07 36

Kalitate-merkataritza ziurtagarria  
UNE 175001-1:04

**LOIUN VICTORIO & LEONARDO**  
SILVIA RIBO  
CARMELA  
TATIANA  
MARTIN  
CLAYTON  
MARGARITA LACAI  
ANTONIO RIBO

**DE LA DIFUSA Y MODUR**  
FURIA  
GON  
BAZDA  
SOFIA FERNANDEZ  
VICENTE & LEONARDO  
JITERO  
DIEGO FERRA  
YAGELI  
SOD TALI  
PABLO ATNERICH  
MIRIA  
LUCA GIOGAN

**SHIRAZI 2010**  
JESUS  
ANTONIO  
AZU  
RODRIGUEZ



**EDURNE-ARGIÑE GABILONDO**  
Tel.: 666 712 720 - 666 711 878  
Upaiz - Zaharra 4 Behea  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**ATSEDEN**

**GORPUTZ - TRATAMENDUAK:**

- \* Andregaiarentzako tratamendu bereziak: edertasuna, karma eta lasaitze tratamenduak.
- \* Golden-Spa tratamendua
- \* Zazpi piramideak
- \* Body plana: zirkulaziorako, argaltzeko eta drenatzeko tratamenduak.
- \* Esfoliatzailea: Spa Creamsauna
- \* Ardoterapia
- \* Txokolaterapia
- \* Bildukiak (Termoterapiarekin)

**MASAJEAK:**

- Kirol-masajea
- Kiromasajea
- Esku-drenaje linfatikoa
- Erlaxatzailea aromaterapiarekin
- Zirkulazio-tratamendua (Nekatutako hankak)

**BILDUKIAK (termoterapiarekin)**

**YANG-YIN**  
Erlaxatzailea algen bildukia

**BESTE TERAPIAK**  
Oxigenoterapia



**KONTSULTA EGIN:**  
Kontsulta Nutrizionala  
Gorputz-osaeraren azterketa, era osasuntsu eta orekatuan elikatzeko aholku praktikoak.



# Orrazkera

**O**rrazkera egokia izatea garantzitsua da. Ilea ez mozteko erabakia hartzen bada ere, komeni da ezkontza hasi baino bi aste lehenago ileapaindegira joatea. Ilea bildu ala ez, ileapantzaileak azken ukituak emango dizkio: kopetako ilea txukundu edo puntak moztu. Metxak egiteko asmoa baduzu, ezkontza eguna baino egun batzuk lehenago egitea aholkatzen dute profesionalak. Modu horretara, ilea nahi adina garbitzeko aukera izan dezakezu.


Ilea koloreztatzekotan, ez hautatu kolore aldaketa bortitzik. Jokatu tono aldaketekin, berezkoa baino bi tonu argiagorekin, adibidez. Ilea bizitasuna berreskuratu du, eta ez duzu ezustekorik izango erretiratu zure burua ikustean. Komenigarria da ezkontza heldu baino bi hilabete lehenago proba egitea.

Ile motza baduzu eta luzatzeko denbora nahikorik ez balego, proba ezazu pelukarekin edo estentsioekin. Profesional on baten eskutan, inork ez du igarriko ez dela zure berezko ilea. Luzatzeko erabiltzen den ileak biltzeko ere balio du, ile naturalak baitira. Zure burura keratina sintetikoarekin eta pintza termikoarekin egokituko dira. Pixka bat zainduz gero, sei hilabeteko iraupena izan lezake.

Orrazkera baten edo bestearen alde egin aurretik, proba itzazu gu-txienez hiru. Gogoan izan ezkontzeko jantziarekin bat egin behar duela, eta harmonia nagusitu behar dela.

Ilea biltzekotan, zerbait xaloa eta erraza aukeratu.

Gogoratu, lehenik eta behin, zure ile orrazkera eta arropa zure jarraipena direla, eta ez zure moztuak. Zuk egon behar duzu eroso.



## estetikaalire

### EZKONBERRIENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA! EMAKUME-GIZONENTZAT

- Aurpegi lifting-a + estresa kentzeko tratamendua + manikura + pedikura..... 110 euro
- Larruazal garbiketa + gorputz peeling-a + aurpegi lifting-a..... 108 euro
- Lifting-a + relax algarekin bildukia + masajea + pedikura..... 92 euro

*Mila aukera daukazu, galdetuz.*  
*Ez galdu aukera guro ezkontza pack-ak probatzeko, %10eko deskontuaz gozatuz.*

Ordutegia

Astelehenerdik Osatralera 09:30 12:30 / 15:00 - 20:00 - Asteazkena: 09:30 - 19:00 - Larunbata: 10:00 - 13:00

Upaiz zaharra, 1 behe - Telf: 943 531 636 - Elgoibar

**TRATAMENTUAK:** Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laserra, elektrikoa, argizarikoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hantetako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoak



# JOSE ANTONIO

## ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 · Tel: 943 74 14 92

# DONNA

## Ileapaindegia-Edergintza

Pedro Muguruza, 13  
Tel. 943 74 43 88

# Amagoia

## ileapaindegia

Tel: 943 03 38 35  
Mendarozabal, 4 behea  
MENDARO



# Tximak

## ILEAPAINDEGIA solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 74 43 57

# HAIR'S

## ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel: 617 988 130

# ELENA

## ileapaindegia depilazio elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 · Tel: 943 74 11 89

# AGURTZANE



## Ileapaindegia Solariuma

### BERRIA! LASER DEPILAZIOA!

Santa Ana, 18 · Tel. 943 74 18 64

# NAHIA

## ILEAPAINDEGIA

### Solarium-a - Unisex-a

Azpilgoeta, 14 ·  
Tel. 943 75 51 01 · MENDARO

# Maria Urizar

## Ileapaindegia Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 74 44 89





**JATETXEA**

Loiolako Inazio

Hiribidea, 47


20730 AZPEITIA

Tel: 943 15 16 16

Faxa: 943 15 16 18

[www.hotelloiola.com](http://www.hotelloiola.com)

*E-posta: [loiola@hotelloiola.com](mailto:loiola@hotelloiola.com)*







MONUMENTU ARTISTIKOA



# LASA JATETXEA



*250 LAGUNEN DAKO  
JANGELA*

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*



Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

[www.restaurantelasa.com](http://www.restaurantelasa.com)

BERGARA





## Mendaroko Ospitaleak 30 ohe gehiago izango ditu datorren urtetik aurrera

Larrialdi zerbitzua hobetzeko lanak hasiko dituzte udan

**O**sakidetzak Mendaroko Ospitaleko instalazioak handiko ditu, datorren urtera begira, egoitzaren atzealdean dagoen aparkalekuan. Udalararekin adostu du lursail berriak erosteko beharra. Hortaz, atzealdeko aparkalekuaren lekuan eraikin berria egingo dute. Bertan 30 ohe gehiago, kontsultetarako lekua eta umeentzako eta ama izateko zain daudentzako gunea jarriko dituzte, aparkalekuetako so-toaz gain.

Aldaketa horien ondorioz, aparkaleku berria egingo dute mendi gunean bertan. Proiektu guzti horretarako bi erakundeak ados jarri badira ere, tramiteen zain dau- de obrak lehenbailehen hasteko.

### 350 m<sup>2</sup>-ko eranskina

Bien bitartean, Osakidetzak bi milioi eurotako inbertsioa egingo du Larrialdietako eremuan. Horretarako sarreratik gertu dagoen gunea erabiliko dute 350 metro koadro gehitzeko. Helburua Larrialdietako baldintzak eta tokia hobetzea da, gutxienez beste hamar urterako. Izan ere 1992. urtetik, ospitala egin zutenetik, ez dute aldatu.



### Larrialdi kasuak igo dira

Debabarreneko ospitalak gero eta larrialdi kasu gehiago ditu. Azken zazpi urtetatik %27 igo dira. 2006an 7.000 ospitaleratze hartu zituen, 2005ean baino 1.200 gehiago eta 2001ean baino 1.000 gehiago. Erditzei dagokionez, 600 erditze izan ziren 2006an.

Mendaroko Ospitaleko kontsulta kopuruak ere gora egin zuen nabarmen. Urtero 140.000 kontsulta inguru egin ohi dira; horietatik 31.000 urgentzia zerbitzuan. Biztanleriak ere gora egin du eskualdean, eta neurri horiekin, herritarrei zerbitzu eraginkorragoa eman nahi diete.



## Nagusien Kontseiluak ere Ospitalea handitzeko eskatu izan du behin eta berriz

Debabarreneko Nagusien Kontseiluak txosten batean jakinarazi du eskualdean ez dutela behar bezalako osasun zerbitzurik jasotzen gaitortzeko eskualdeko prestakuntzekin alderatuta. Ildo horretan, unitate soziosanitarioak hobetzeko beharra eskatu dute, nagusi askok Debarranetik Donostiara joan behar dute-eta.

Era berean, bularreko minbizia detektatzeko mamografiak egiteko leku nahikorik ez dagoela adierazi dute. Debabarreneko Nagusien Kontseiluaren arabera, Mendaroko Ospitalea handitu egin beharko litzateke.



## Hogeita bost mendizalek parte hartu zuten Mendaroko mendi itzulian

**M**endaron maiatzaren 17an zuten hitzordua herriko mendizaleek. Guztira 25 lagun bildu ziren mendi itzulia egiteko eta azkarrena Igor Ezenarro izan zen, lau ordu eta hama-bost minuturekin.

### Ibilbide ederra

Parte hartzaileen esanetan, egun pasa paregabea izan zen. Goizean goiz, zazpietan, Gaztetxean zuten geralekua. Ibilbidean zehar, Beraseta, Madariaga,

Atxuri, Sarue, Sasiola, Ormola, Arnoate eta Gaztxia zeharkatu zituzten. Larrakandan hartu zituzten aurrera jarraitzeko behar izan zituzten janari eta edariak. Kosta ahala kosta, ibildea bukatu zuten, Arno mendira heltzeko zailtasunak izan bazituzten ere, izan ere lokaztuta baitzegoen. Oro har, eguraldi aproposa egin zuen.

Bestalde, Gotzon eta Ander Zulaika eta Haritz Goikoetxea mendarorrek Tolosako 14 Orduetan parte hartu zuten.



### Athleticek talde berria bilatu beharko dio Zubiaurreri

Iban Zubiaurre Athleticeko jokariak ez du talde bizkaitarrean jarraituko. Caparros entrenatzaileak ez du bere aldeko apusturik egin. Ez du jokatu gabe egon nahi, eta atzerrira joateko ere prest legoke. Gainera, Auzitegi Gorenak gertu du bere kasuaren inguruko sententzia.

### Hiru atxilotu taberna batean osten saiatzeagatik

Susmagarriak Emeterio tabernan sartzen saiatu ziren pasa den asteko martitzen goizaldean, baina ez zuten lortu. Ordu batzuk geroago atxilotu egin zituzten.

### Gizonezko bat hil da, trenak harrapatuta

Mendaro eta Elgoibar arteko trenbidean agertu zen adineko gizonezko baten gorpua maiatzaren 17an. Pasabiderik edo antzerakorik ez dagoen puntuan trenak harrapatuta eta bertan hil zen.

## Txankakuak hileko lehenengo osteguneko sustapena

Ekainak 5

Hileko lehenengo ostegunean, Txankakua dendeak sustapen desberdinak kaleratuko dituzte. Produktuak prezio onean lortzeko aukera izango duzue!



# NIEVES MAIDAGAN

Eskuz tailerreko irakaslea

**Nieves Maidagan errestauratzaileak altzariak zelan zaharberritu irakasten du Eskuz arte tailerrean. Ikasleek zaharkituta-ko eta hondatutako altzariak dotore berreskura daitezkeela frogatu dute egunotan: egindako lanekin erakusketa eskaintzen dihardute Kultur Etxean, domekara arte. Bi urtetik behin prestatzen dute erakusketa.**

**“Beste itxura bat eman ahal zaie gauzei”**

**Altzariak zaharberritzen hastean, zein da lehenengo pausoa?**

la dena sitsarekin etortzen da. Lehenengo pausoa izaten da Adunara eramatea. Han tratamendu bat egiten diote, vacsolizatzea deitzen zaio. Likido bat ematen diote eta hutsean sartu. Merkeago izateko, dena batera eroaten dugu. Kamioi edo furgonetaren bat alokatzen dugu, eta hara bidaltzen ditugu. Gero tailerrera ekartzen ditugu. Begira zer gauza dauden.

**Kutxa zaharrak, aulkiak, mahaiak, erloju zaharrak... Hemen denetik dago barren! Nork ekartzen ditu altzari zaharrok?**

Jendeak. Kurtsoaren politika da jendeak bere gauzak ekartzea. Horrela jendea gehiago motibatuko da. Hemen gauzak badauzkagu, baina lehenago lixatu egin behar da, garbitu, eta orduan lan hori nahiko zikina da. Jendea motibatzeko, altzaria berarena bada gauza bat da. Baina *paliza* hartzea hor lagatzeko edo beste batentzako, hori beste gauza bat da. Ikusten duzu nola heltzen diren gauzak? Mahaiak hautsita, beste batzuei piezak falta zaizkie... Hondatuta heltzen dira eta erakusketan dena ikusiko duzu.

**Era guztietako altzariak berriztatzen dituzue.**

Hemen bi gauza egiten ditugu: errestauratu eta birziklatu.

**Desberdinak dira?**

Errestaurazioa da altzaria dagoen bezala lagatzea, baina berriztuta: garbitu, sitsa kendu, argizaria eman... Birziklatzea beste aire bat ematea da, mahai hau arrosaz margotu, esaterako. Ikusiko duzu erakusketan beste forma modernoago batean daudela: aurten plateatua asko eroaten da, eta badauzkagu gauza batzuk horrela.

**Inolako irteerarik ez duten altzariak etortzen zaizkizue?**

Denak dauka soluzioa. Gauza asko egin daiteke, gainera beste itxura bat eman ahal zaie gauzei, tapizatu eta horrela.

**Gauza asko botatzen ditugu zaborretara, ezta?**

Bai. Gauza pila bat zaborretatik hartuta daude. Erakusketan bertan badaude batzuk. Eta ganban egondakoak, erdi galduta daudenak...






## Berrehun lagunek hartu dute parte Elgoibarko mendi itzulian

**M**orkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Elgoibarko mendi itzulia izan zen pasa den domekan, eta berriro ere, sekulako arrakasta izan zuen. Berrehun lagunek hartu dute parte, urteik urtera indartzen ari den mendi proba horretan. Eguraldi iragarpenak ez ziren oso onak domekarako, baina hala eta guztiz ere, izena emanda zuten gehienak azaldu ziren goizeko 6:00etan Plaza Handian, eta horiez gain, beste 50 lagun apuntatu ziren irteeran bertan. Antolatzaileen esanetan, elgoibartarrez gain, Azkoitia, Mendaro, Deba, Etxebarri, Markina, Eibar eta Soroluzeko jendeak ere hartu du parte aurtengo saioan. 38 kilometroko ibilbidean izan zuten mendizaleek jan eta edateko aukera, eta itzulia amaitu ondoren Merkatu Plazako lokalean egin zuten bazkaria. Irudi batzuk bildu ditugu orri honetan.

Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)



### ESKERTZA



2008ko maiatzaren 23an hil zen *Lázaro Aizpitarte Lete* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### I. URTEURRENA



2007ko maiatzaren 31n hil zen, 89 urte zituela, *Rosa Ostolaza Zabaleta* andrearen oroimenez I. urteurreneko meza izango da.



## Asteburuan jokatuko dira tenis txapelketako finalak

Horrez gain, kiroldegiak tenis jaialdia hartuko du bihar

**T**enisa izango da kirol guztien artean protagonista asteburuan. Izan ere, tenis txapelketako finalak jokatuko dira alde batetik, eta bestetik Tenis jaialdia antolatu dute Olaizaga kiroldegian.

Aste honetan erabaki dira tenis txapelketako finalak. Bihar jokatuko dira IMHko pistan. Euria eginez gero, kiroldegian izango dira domekan. Benjamin (98-99) nesketan Leire Urzankik eta Nerea Solozabalek jokatu dute; benjamin mutiletan Antxon de la Haradak eta Unai Astiazaranek. Alebin mutien finala (96-97) Iker Larrea eta Jon Etxanizen artean izango da. Infantil mutilen (94-95) norgehiagoka, berriz, Iñaki Conde eta Joanes Etxaberen artekoa izango da. Alebin-infantil nesken finalean (94-97) Maria Badiola eta Zuriñe Conde izango dira.

### Jaialdia

Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatuta, Tenis jaialdia izango da Olaizaga kiroldegian 10:30etatik aurrera. Sei urtetik gorako umeek parte hartu ahal izango dute. eta sarrera doan izango da. Kataluniako



enpresa batek eskainiko ditu, urtero bezala, hainbat jolas, hala nola: abiadura radarra, pilotak jaurtitzeko makina, agassi puzgarria, minitenisa, jolasak eta sariak.

### Udal kirol politiken inguruko topaketak 80 lagun elkartu zituen Elgoibarren

Maiatzaren 22 eta 23an 80 lagun baino gehiagok parte hartu zuten udalen politikari buruzko topaketetan, Elgoibarren.

Udal kirolaren inguruan eztabaidatzeaz gainera, kirola egiteko azpiegitura eta materialei erreparosoa egin zieten bertaratutakoek Leku-Eder parkean orain dela gutxi egokitutako karpan.

### Futbol 7 txapelketan izena emateko epea gaur bertan amaituko da

Eskualdeko Futbol 7 Txapelketa ekainaren 7tik uztailaren 19ra jokatu da Mintxetan eta Eibarko Unben, Elgoibar eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatuta. Izena emateko epea gaur

bertan amaituko da, barixakua. Talde kopuru mugatua jarri dela-eta, Olaizagan eta Ipuruan hamarna taldek eman dezakete. Talde bakoitzak 57,10 euro ordaindu beharko du.

### Areto futboleko jokatzeko deialdia

Debarbarrena kirol elkarteak deia egin du 08/09 denboraldian areto futboleko jardun nahi dutenen artean. Datorren astean elkartuko dira, astelehen eta eguaztenean, 17:30etik aurrera Olaizaga kiroldegian. 1990 eta 1996 artean jaiotako gazteek eman dezakete izena, jubenil, kadete edo infantil kategorietan jokatu ahal izateko. Deialdira kirol arropa eramateko eskatu dute, frogak egin eta datorren denboraldiko taldea osatu ahal izateko.

### CD Elgoibarren batzar berezia

CD Elgoibar kirol taldeak zuzendaritza osatzeko arazoak dauz kala-eta, bazkide guztiei dei egiten die ekainaren 6ko batzar berezian parte hartzeko. Zuzendaritza berri- tzea izango da batzarreko puntu bakarra. Kultur etxean izango da batzarra, 19:00etatik aurrera lehen deialdian eta ordu erdi geroago bigarrean.

### Finalista eguna, ekainaren 8an

Morkaiko finalista eguna ekainaren 8rako antolatu du. Domina banaketaren osteko bazkarian izena emateko azken eguna astehele- na izango da, hilak 2. Goizeko 10:30ean plazatik abiatuko dira Idortorbe-San Pedrorra eta goian hamarretakoa izango da. Dominak 12:30etan banatuko dituzte. Dominak hainbat izango dira: 10, 15, 20 eta 100 mendi egin dituztenentzako eta 20.000, 30.000 eta 40.000 metro egin dituztenentzako. Bazkaria 14:30etan izango da. Umeek Atxutxiamakarekin bazkaltzeko aukera izango dute, baina bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Zalantzarik izanez gero, antolakuntzarekin harremanetan jartzeko eskatu du Morkaiko elkarteak.



# Finalerdietarako txartela Hernaniren aurka bilatuko dute gaur pilotariek

Ezustekoa eman nahi dute Herriarteko txapelketan



**H**ernanik 1-2 irabazi zion Elgoibarri Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketako final laurdenetako joaneko partidetan. Gaur Hernanin, 21:00etatik aurrera, jokatuko diren itzulerako partidetan nagusitu beharko dute pilotari elgoibartarrek, kanporaketari buelta eman, eta finalerdietarako sailkatzeari nahi badute behintzat. Ez da erraza izango, baina ez dago ezinezkorik. Aurreko kanporaketan (Andoainen aurka),

esaterako, azken tantoan egin zuten aurrera elgoibartarrek.

Elgoibar Ikastolako frontoian ikusitakoaren arabera, senior mailako bikoteen arteko partidaren egon daiteke kanporaketa erabakiko duen giltza. Izan ere, kadeteetan erraz irabazi zuten hernaniarrek (3-22), eta, aldiz, jubeniletako partidak ez zuen kolorerik eduki (22 eta 5 elgoibartarren alde). Hortaz, senior mailako partidua erabakigarria izan daiteke.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Hernani **5** – Elgoibar **1** (Jubenilak)  
Elgoibar **1** – Beasain **2** (kadeteak)  
Elgoibar **1** – Eibar **6** (alebinak)

### ESKU PILOTA

Deba Arroko Txapelketa  
Lagunak **22** – Arrasate **20** (jubenilak)  
Lagunak **22** – Oskarbi **19** (nagusiak)  
Herriarteko txapelketa  
Elgoibar **1** – Hernani **2**

### ESKUBALOAIA

Cometel Elgoibar **14** – Zarautz **35** (jub. neskek)

### XAKEA

#### Taldeakako senior txapelketa

1. Tolosa
2. Logroño.
3. Elgoibar (Mikel Leon, J.M. Navarro eta Ivan Fernandez)

#### Eskola artekoa

1. Ivan Zapata (1993-1994-1995)
1. Andrea Arrieta (1996-97-98)
1. Guillermo Hijano (1999-00-01)

#### HIRU TXIRLO TXAPELKETA

##### Sailkapena

1. Bittor Astigarraga 7 puntu
2. Angel Ibarlizea 6 puntu
3. Jose Muñoz 6 puntu

## AGENDA

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 31

18:00 IMH Elgoibar – Usurbil (kad. neskek)

### TENIS JAIALDIA (Kiroldegian)

Zapatua, 31

10:30 Tenis jolasak.

### TENIS TXAPELKETA (IMI-hn)

Zapatua, 31

16:00 Finalak (euria egiten badu, domeka goizean kiroldegian).



## Astebukaera honetan prest egongo da Leku Ederreko kantxa

Leku Eder parkea futbolean eta saskibaloian jokatzeko leku aproposa bihurtuko da astebukaera honetatik aurrera. Sei eta hamalau urtera arteko umeentzako jolas pista balioanizta jarri du Udalak Leku-Eder parkean. Hormigoia lehertzeko zain zeuden arduradunak.

## Behobia-Donostiarako izen-ematea, zabalik

Behobia-Donostia lasterketarako izen-ematea zabalik dago. Internet bidez bakarrik egin ahal izango da. Iaz, 2007an 101 elgoibartarrek amaitu zuten Behobia eta Donostia arteko maratoi erdia. Aurtengo Behobia-Donostia lasterketa azaroaren 9an egingo da.

## LANA

### ESKAERA

- Mutila, banatzaile, igeltsero edo tailer batean lan egiteko prest. ☎ **639 984 262**
- Neska, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01**
- Neska, portaletan edo sukaldeak garbitzeko prest. ☎ **649 212 944**
- Neska, umeak zaintzeko prest. Espe-rirentziarekin. ☎ **685 763 946**
- Neska, garbiketa lanak egiteko prest. Goizez edo gaez. Interna ere bai. ☎ **697 813 719**
- Neska, portaletan lan egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Mutila, sukaldari lagunzaile edo zerbitzari lan egiteko prest. ☎ **650 611 415**
- Neska, orduka lan egiteko prest.

### Soldatzailea

- Espainiako titulua duen soldatzailea, peoi lanak egiteko prest. ☎ **661 225 149**

### ☎ 658 164 787

- Mutila, edozertan lan egiteko prest. ☎ **666 215 426**
- Neska, zerbitzari, sukaldean lagun-tzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 377 283**
- Neska gaztea, nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Neska, arratsaldean nagusiei paseoa ateratzeko edo zaintzeko eta erizain lan-guntzaile lan egiteko prest. ☎ **675 711 658**
- Neska, lan egiteko prest. ☎ **650 611 415**

### ESKAINNTZA

- Pertsona bat behar da gizon nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Abuztuaren 8tik 18ra. Segurtasun soz-iala. Soldata ona. ☎ **639 931 772** (arratsaldeetan)
- Eguazten eta domekarako zerbitzaria behar da jatetxe batean. ☎ **943 12 12 62**
- Neska behar da orduka nagusia zain-tzeko. ☎ **678 012 477**

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

- Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukalde, bainua eta ka-marotea. Kanpoaldera begira eta eguz-kitsua. Altzarietan eta igogailuarekin. ☎ **666 650 626**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berriua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzarietan salgai. ☎ **628 115 677**

### Pisu berriua salgai Elgoibarren

- 100 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 komun, sukalde, jangela, egongela, hegoaldera begira. Bizitzera sartzeko ☎ **639 628 763**

- Buhardilla salgai Altzolan. ☎ **943 74 34 92**

## GARAJEAK

- Bi garaje alokairuan. Plaza Handitik gertu, Jausoro Plazan. Biak itxiak eta ederrak (16 eta 19m<sup>2</sup>). Bata 75 euro eta bestea 85 euro, hilean. ☎ **615 787 748**
- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorren-tzako. ☎ **616 111 603**
- 16 m<sup>2</sup> -ko garaje txikia alokairuan San Roke kaleko 10ean, kiroldegi atzean. ☎ **943 740 118**

## MOTORRA

- Seat Ibiza salgai. Prezio onean. ☎ **678 803 535**
- Seat Leon TDI beltza salgai. 105 sal-gai, eguzkirako goialdea, kit aerodinami-koa. 150.000 km. 17.000 euro. Transfe-ritua. ☎ **647 626 693**
- Opel Astra Coupe gasolina salgai. 95.000 km. Egoera onean. Beti garaje-an. 7.500 euro (negoziatzeko). ☎ **665 727 979**
- Citroen Saxo diesela salgai. Egoera onean, beti garaje-an. 97.000 km. ☎ **665 720 681**
- Initiale modeloko Renault Laguna au-toa salgai. Gama altua. 2003. urtekoa. Egoera ezin hobea. Beti garaje-an gor-dea. 88.000 km. 16.000 euro negozia-garri. ☎ **690 226 581**

## BESTELAKOAK

- Bruce Springsteen kontzertua uz-tailaren 15ean ikusteko bi sarrera sal-gai. ☎ **646 790 389**
- Alokairuan hartzeko pisu bila gabiltza. ☎ **649 212 944**
- Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita si-maurra eta lan egiteko erremintak ere. ☎ **655 723 678 943 74 39 19**
- Pisua alokairuan Gasteizen. Ikasleen-tzako. Hiru logela eta egongela. ☎ **670 351 672**
- Logela independentea alokairuan, gil-tzarekin. Deban, pisu propioa. Berria. ☎ **605 585 057**
- Alokairuzko etxe baten bila nabil. Denbora luzerako, eta egoera onean, Elgoibar edo Mendaron. ☎ **639 628 763**
- Hendaian apartamentu berriua alo-katzen da. Familia batentzat egokia. Bi logela bikoitz ditu, komuna, sukalde, egongela, terraza, igerileku eta parking pribatua. Hondartzatik gertu. ☎ **670 410 858**
- Pisua alokatzen da. Logela bat. Al-tzarietan eta berria. Kanpoaldera ema-ten du. ☎ **636 631 632**
- Ahuntzak salgai prezio onean. ☎ **699 300 325**
- Neska behar da logela alokatzeko Debatik gertu. ☎ **664 126 273**
- Neska behar da pisua konpartitzeko Mendaron. ☎ **636 690 861**
- Neska behar da logela eta bainua alokatzeko Elgoibarren. ☎ **699 486 458**
- Gutxienez hiru logela dituen pisu ba-ten bila nabil. ☎ **639 882 004**
- Gortinak, ohe arropak, alfonbra txiki edo handi, altzari eta etxerako tresnak behar dira. ☎ **676 444 171**

## ABISUAK

- Perikito berdeak ihes egin du kaiola-tik. Urasandin, Herri Eskola inguruan. Sarituko da. ☎ **616 790 345**



## BEKAK

### BRITANIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako hoge-i beka, Britainia Handiko uni-bertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egi-teko.

Epea: ekainak 13.

### JUAN SAN MARTIN

Eibarko Udala. Euskarazko lkerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskaltzale eta ikertzailea omentzeko, bere izena daraman ikerketa-bekarako deialdia egiten du. Epea: urriak 10.

## LANA

### BEGIRALEAK

Gazte Informazioa. Udako ekintzetarako begiraleak. Gipuzkoako informazioa: [www.gipuzkoagazteria.net/uda](http://www.gipuzkoagazteria.net/uda)

## EKINTZAK

### EPAIMAHAIKIDEAK

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Gazte epaima-haikideen hautaketa 2008ko irailean egingo den Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako, 17 eta 21 urte bitarteko gazteak. Epea: ekainak 15.

## ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [gjb@elgoibar.org](mailto:gjb@elgoibar.org)  
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:  
11:00etatik 13:00etara  
Astelehenetik ostiral arratsaldetan:  
16:00etatik 19:00etara.

## OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **12 euro** eta alokairua **8 euro**. Autoak **8 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## MODULOAK

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**






• Zorionak, **Irene**, hilaren 19an zortzi urte bete dituzulako. Ibonen eta gurasoen partez.



• Zorionak, **June**, igandean bi urte beteko dituzulako. Familiakoen partez. Txokolate asko jan!



• Aupa, **Sara**, ekainaren 2an hiru urte egingo dituzulako. Roke eta familiako guztien partez.



• Mila musu gure etxeko dantzariarentzat. Datorren asteazkenian zazpi tirakada belarritik! Ondo pasa!



• Zorionak, **Sara**, hilaren 28an zure eguna izan zelako. Muxu handi bat guraso eta Joneren partez.



• Zorionak, **aittita**, zure 80. urtebetetzean. Etxekoen, eta bereziki, Ane eta Mariaren partez.



• Zorionak, **Jokin**, astelehenean hamar urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Jon**, maiatzaren 28an zazpi urte egin zenituelako. Familiakoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Haritz Gonzalez**, gaur lau urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Aritz**, hiru urte egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki Mikeltxoren partez. Muxu bat!



• Zorionak merkatuko neska naturalenari. Naturalen partez. Zerbeit esperodugu!



• Zorionak, **Peru**, hilaren 28an zortzi urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Asier**, ekainaren 2an lau urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Araceliren partez.



• Zorionak, **Anton**, sei urte egin dituzulako. Azkenean iritsi da zure eguna! Muxu asko etxekoen partez.



• Zorionak, **Jon**, hilaren 28an 11 urte egin zenituelako. Gurasoen, eta bereziki, Malenaren partez.



• Zorionak, **Naroa!** Muxu eta besarkada handi bat Mari Carmen eta familiakoen partez.



• Ekainaren 1ean zuen eguna delako eta seinamuxutxo bakoitzari. Familiakoen partez.



• Zorionak **Olaia eta Ana!** Ondo pasa eguna! Aita txoren eta familiakoen partez.

## ZORIONAK AMAMA MARGARITA



100 urte egin zituen Margarita Olañetak maiatzaren 24an. bere bost seme-alaba, 11 biloba, hamar birbiloba eta gainontzeko senitartekoez inguratuta osaptu zuen. Zorionak denon partez.



• Zorionak, **guapetones!** Muxu handi bat familiako-en partez.



• Zorionak, **hirukotel** Hau bai zuen hilabetea! Muxu asko familiako-en partez



• Zorionak, **laukote** maiatzaren urtebete egin zenituelako. Ikastolako laguntxo-en partez muxu handi bana!!!





## Ikastaroak

### 2 astelehena

#### 9:00 Internet ikastaroa

KZgunean internet ikastaro berria hasiko da 16 urtetik gorakoen artean.

## Besteak

### 30 barixakua

#### 17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

### 30 barixakua

#### 20:00 Manifestazioa

Mikel Ibañez presoaren askatasuna eskatzeko mobilizazioa.

Plaza Handitik.

### 31 zapatua

#### 11:00 Ate irekiak

IMHko Heziketa Zikloetako eta Ingeniaritza Eskolako ate irekien eguna. IMHn.

### 4 eguaztena

#### 15:00 edo 19:00

#### Ludotekako bilera

Ludotekako bazkideen gurasoen bilera. Ludotekan.





2008-2009

Izenematea  
**Ekainaren 2tik 13ra**



*Lanerako gertu!*

ESKAINNTZA AKADEMIKOA

MGEP	ETEO
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Eregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak</li> <li>•Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>•Informatika Aplikazioen Garapena</li> <li>•Proiektu Mekanikoen Garapena</li> <li>•Mekanizazio Bidezko Produktzioa</li> <li>•Industri Ekipoaren Mantentimendua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Administrazioa eta Finantza</li> <li>•Idazkaritza</li> <li>•Merkataritza Kudeaketa eta Marketigina</li> <li>•Nazioarteko Merkataritza</li> </ul>

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a





Apirileko irabazlea:  
**CORO RIVERO**

Maiatzeko saria:  
**GORPUTZ BILDUKI MASAJEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

# ELGOIBARKO LUDOTEKAN ETA GAZTELEKUAN LAN EGITEKO HEZITZAILEAK BEHAR DIRA

**ESKATZEN DA:**

- Debabarreneko udalerrietan bizi izatea.
- Titulazio hauek izatea baloratuko da: Gizarte Heziketako, Gizarte Laneko, Irakaskuntzako, Psikopedagogiako... goi eta erdi mailako unibertsitate tituluak.
- Aisialdiko begirale titulua izatea baloratuko da.
- Esperientzia

**ESKAINNTZEN DA:**

- Urtebeterako lan-kontratua (irailean hasita).

Informazio gehiago eta curriculumak entregatzeko:  
E-posta: [aisia@elgoibarkoizarra.com](mailto:aisia@elgoibarkoizarra.com) - Tel.: 943 74 16 26 (Ainara)  
Azken eguna: ekainak 13 (ostirala)

herritik kanpo



## Ion Aranzamendi

Garai batean, elgoibartar gutxi egiten zituzten ikasketak atzerrian, baina gaur egun, gero eta gehiago dira. Erasmus beka sistemari esker, Ion Aranzamendi Finlandian egon da ikasketa amaierako praktikak egiten. Hiru hilabete egin ditu Europako iparraldean, eta aho gustu ezinhobearekin itzuli da etxera.

**“Finlandia ez zegoen nire zerrendan, baina ez naiz damutzen”**

**Zer dela eta joan zinen Finlandiara?**

Erasmus programarekin etorri nintzen Finlandiara, ikasketa amaierako praktikak egitera. Hasieran ez neukan Finlandiara etortzeko asmorik. Irlanda zen nire aukera, baina Finlandia tokatu zitzaidan. Hala ere, ez naiz damutzen, izan ere, Europako iparraldeko herrialde horretan hiruhilabete egin ditut. Halako aukerak ez dira sarri izaten.

**Zer egin zitzaizun zailena iritsi zinenean?**

Bizimodura ohitzea izan zen zailena. Oso goiz bazkaltzen dute eta dendak eta tabernak berehala ikusiko dituzu itxita. Kaleetan ixiltasun handia dago, inork ez du zaratarik ateratzen, ez da ahotsik entzuten. Momentu askotan dena hilik dagoela dirudi. Gainera, oso garestia da.

**Nolakoa da Finlandia?**

Herralde luzea eta oso laua da. Duen taiminarako, jende gutxi bizi da hemen. Klimari dagokionez, neguan hotz egiten du, -25 gradu egiten ditu, eta apirilean, berriz, 20 gradutan egon zaitezke. Oso berdea da

dena, eta toki altu batzuetara igoz gero, izugarriko bistak daude. Ni Finlandia erdialdean nago, Lakuen Lurraldean, eta dena lakuz beteta dago. Oso polita da ikustea lakuetan jendea paseatzen, edo fondoko skia egiten. Jendea oso hotza da, baina edozer galdetuz gero, ulertu arte esplikatzeko prest egoten dira.

**Urte erdi negua eta beste erdia uda izaten da. Zuri zer tokatu zaizu?**

Maiatzean gaudenez, ia ez dago gaurik, ez du iluntzen apenas, eta oso polita da. Ekain inguruan gehiago nabarituko dela diote. Gaueko 12:00etan oraindik ez du guztiz ilundu, eta goizeko 3:00etan egunez dago.

**Zer moduzko esperientzia izan da?**

Esperientzia oso polita eta interesgarria izan da. Ez nekien zer aurkituko nuen, baina ezin naiz kexatu, egin ditudan lagunekin, eta bizi izan dudana esperientziarekin. Merez du Finlandiara etortzeak.



Finlandiako jantzi tradizionalak

### LUDOTEKAKO EKINTZAK



**BAZKIDEEN GURASOEN BILERA**

**EKAINAK 4**

15:00 etan eta 19:00etan  
Ludotekan

### GAZTELEKUKO EKINTZAK



**UDALEKUETARAKO AZKEN PLAZAK!**

Mendigorriko aterpetxera joateko izena emateko azken egunetan gaude.

**Anima zaitez!!**





# ELGOIBAR B.H. INSTITUTUA

## 2008/09 IKASTURTEA

### **Elgoibar B.H. Institutua**

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarbhi.net](mailto:bulegoa@elgoibarbhi.net)  
[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)

### **ERDI MAILAKO ZIKLOAK**

Ibigailuen elektromekanika

Karrozeria

Merkataritza

Erizaintza-laguntza osagarriak

### **GOI MAILAKO ZIKLOAK**

Automozioa

Administrarritza eta finantzak

Haur-hezkuntza



**Aurrematrikula-epea:**

**Ekainaren 2tik 13ra**

**Etor zaitez egun hauetan gure institutua ezagutzera**



EUSKO JAURLARITZA  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA  
ETA IKASLETA DAIRA

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



***www.xarmant.com***

**Teknologia berrietara egokitzen gara  
geure bezeroen mesederako.  
Eska itzazu zure aurrekontuak online,  
eta gure web gunetik  
behar duzun informazioa  
emango dizugu.**

**AUTONOMOENTZAKO SEGURTASUN OSOA**



Gaur egun, 3.000.000 autonomo baino gehiago daude, hau da, 7 langiletik 1 autonomoa da. XARMANT MILENIUM Artekaritzak autonomo bakiltzari egokitzen zalon produktu sorta zabala eskaintzen du.

XARMANT MILENIUM Artekaritzak babes gabeko sektoreen eta eskakizun sozialaren aldeko poliza bereziak aurkezteagatik bereizten da.

Atonomoa baldin bazara eta autonomoentzako dauden poliza onenei etekina atera nahi badiezum sartu eta informa zaitez.

Trenbide kalea, 21 behea

Tel.: 943 74 80 92

Faxa: 943 74 82 42